



JON URBE / ARGAZKI PRESS

MARI KARMEN GARMENDIA ETA ARDANZA. Jose Antonio Ardanza Eusko Jaurlaritzako aurreko lehendakaria bere gobernuko Kultura sailburu izandako Mari Karmen Garmendiarekin agertu zen.



JON URBE / ARGAZKI PRESS

FERMIN LEIZAOLA. Kultur munduak ordezkari ugari izan zituen. Horien artean, etnografoa.



JON URBE / ARGAZKI PRESS

ALBERTO SCHOMMER. Argazkilari gasteiztarrek azken agurra eman nahi izan zion Txillidari.



JON URBE / ARGAZKI PRESS

REALEKO PRESIDENTEA. Jose Luis Astiazaran Realaren izenean izan zen hiletan. Realeko atezaina izan zen Txillida 40ko hamarkadan.



JON URBE / ARGAZKI PRESS

ROMAN SUDUPE. Gipuzkoako diputatu nagusia Koruko Ama Birjinaren elizara iristeko unean.



JON URBE / ARGAZKI PRESS

EA-KO ORDEZKARITZA. Enrique Arana, Karlos Garaikoetxea eta Rafa Larreina elkarrekin joan ziren Txillidaren aldeko hileta elizkizunera.

HEMEROTEKA

Eduardo Txillidaren heriotzak oihartzun zabala izan du nazioarteko prentsan. Hona hemen zenbait egunkaritan argitaratutako artikuluen pasarte batzuk.

THE GUARDIAN (Erresuma Batua)

«Esan ohi da euskal herritarrek aurreko mendean egindako ekarpenik handiena eskultura arlokoa izan dela, eta Txillida zen euskal artistetan gailenena (...) Baita neurri batean XVI. mendeko Euskal Herriko dekorazio formetan inspiratuta egotea haren planoen erabilera, haren hutsuneak eta forma mailaz mailakoak, (...) baina, Jorge Oteizaren eskulturak bezala, halako lotura bat agertzen du euskal kiroletan, Euskal Herriko hiri eta herrietan oraindik eraikitzen eta erabiltzen diren pilotalekuetan izaten diren plano eta espazio itxiek.

LA JORNADA (Mexiko)

«XX. mendeko eskultore handietako bat izan da, eta Joan Miro, Marc Chagall eta Georges Braque-ren belaunaldiko beste jenio bat (...). *Haizeen Orrazia*-k espazioa eta eskultura batzen ditu, eta elkargune bat izateko egindako oihu bat izan zen —oraindik ere bada—, euskal gatazka historikoari irtenbidea emateko proposamen baten modukoa».

LIBERATION (Frantzia)

«Haren burdinazko eskultura sendoak gune naturalei estekatuta daude, eta euskal identitatearen semaforo gisa balio dute, baina identitate horretan ez dago batere nostalgiarik, eta, Txillidari esker, kultura modernoari heltzen dio».

LE MONDE (Frantzia)

«Txillidaren eskultura bere forma abstraktu soilen, planoen eta lerroen indar

eta zorrotasunagatik gailentzen da. Arte minimalaren kutsua har dezakete, baina ez dira inoiz geometrikoak edo sistematikoak. Eskutik datoz, fisikoki eraiki dira, gizakiaren neurria ematen dute, eta mota guztietako proiektzio mentalak egiteko bidea eskaintzen».

THE TIMES (Erresuma Batua)

«Burdinaz eta altzairuz egin zituen itzelezko lanek nolabaiteko heroi bihurtu zuten eskultorea bere herrian. (...) Txillidak berak argi eta garbi zituen uste politiko sendoak. Gazte zela, nagusiki arrazoi politikoengatik Parisera aldatzea erabaki zuen euskal herritar bat izan zen, baina geroago, Donostiara itzuli zenean, Francoren agintaldiko azken garaian Espainiako artista gazteagoen artean nagusi zen abstrakzioaren bere bertsioa egin zuen (...) Haren sustaiek eta bihotzak Euskal Herrian ja-

rraitzen zuten, eta, etxea zein lantegia aldian behin lekuz aldatu arren, inoiz ez zeuden Donostiatik urrun. (...) Askoren ustez bizirik zegoen eskultorerik handiena zen».

SUEDEDEUTSCHE ZEITUNG (Alemania)

«Txillida ez zen 'eskultore espainiarra'. Bere lanaren eraginaren arabera europartzat besterik ezin baita hartu (...) eta bere erroei begiratzuz gero Euskal Herrian da kokatzekoa».

FRANKFURTER ALLGEMEINE (Alemania)

«Txillidak hutsaren arkitekturarekin konparatu zuen bere artea 60ko hamarkadako bigarren zati testu biografiko batean (...). Hutsa arnasarekin konparatu izan du, zeinak barren-barrenetik materia mugimendua jartzen duen, erritmoa ematen dion eta bere barne armonia kanporantz garraiatzen duen».